

BAZTAN IKASTOLA LAN KONTRATAZIOAK EGITEKO PROTOKOLOA

Segidan zehaztuko dugun “lan kontratazioak egiteko araubidea” langile bat epe luzerako hartu behar delarik edo kontratu mugagabe bat egin behar delarik aplikatuko da. Hurrengo pausuak jarraituko dira:

1. Kontratazio batzordea

Kontratazio batzordea eratuko da. Baztan Ikastolako Estatutuek dioten bezala, Eskola Batzordeak hautatu eta izendatuko ditu irakasleak eskatzaileen artean. Beraz, Eskola Batzordeak eratuko du kontratazio batzordea. Kontratazio Batzordea 5 kideko epaimahaiak osatuta egonen da. Epaimahaiak guraso batek, udaleko bi ordezkariak eta Baztan Ikastolako bi irakasleak eratuko dute.

Kontratazio batzordeak hautagaiek egin behar dituzten frogen datak zehaztuko dituzte.

2. Eskaera orria eta merituen aurkezpena.

Eskaera orria (I ERANSKINA) eta merituen aurkezteko deialdi publikoa egingen da eta hamabortz egun naturaleko epea emanen da.

Deialdia hurrengo lekuetan argitaratuko da:

1. Udaletxeko Web orrialdean.
2. INEMen.
3. “navarra.es”-eko kontratazio gunean.
4. NIEn.
5. Nafarroako Hezkuntza Departamentua.
6. Xorroxin irratian.
5. Xaloea telebistan.
6. Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Eskaera orriak eta honekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa Baztango Udaletxean lan egunetan goizeko 9:00etatik 14:00etara, aurkeztu beharko dira uztailaren 6tik uztailaren 10era (5 lan egun). Aitzinetik hitzordua hartu beharra da telefono zenbaki honetara deituz 948 580 006.

3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Izangaiek eskatutako tituluen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera eta baliaziko ditugun merezimendu guztienak ere (jarraian merezimenduen zerrenda, zerrendatik kanpo gelditzen direnak ez aurkeztu). Agiriok kopia konpultsatuak izanen dira.

Kontratazio batzordeak bildutako eskaerak eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta barematuko du, aitzinetik zehaztuko diren irizpideen arabera.

4. Ezinbertzeko betebeharrak:

- **Aurkezteko baliogarriak diren titulazioak:**
 - Lehen Hezkuntzako diplomatura/gradua edo Haur Hezkuntzako Magisteritza diplomatura.
 - Euskara ezagutza: C1 edo EGA.
 - Gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea dagozkion funtzioak betetzeko.
 - Sexu-delitu Erregistro zentralako ZIURTAGIRIA.

5. Merezimenduen balorazioa (30 puntu)

a) Lan esperientzia (14,5 puntu)

- Euskal Herriko Ikastoletan, HHko azken etapan eta LH 1. zikloan lan egin duten ikasturte bakoitzeko: 2 puntu
- Euskal Herriko Ikastoletan, HHko azken etapan eta LH 1. zikloan lan egin duten hilabete bakoitzeko: 0,16 puntu
- Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Haur Hezkuntzako markoan lan egiteagatik (gutxienez 12 hilabete): 2 puntu
- Euskal Herriko Ikastoletatik kanpo dauden zentroetan, HHko azken etapan eta LH 1. zikloan, lan egin duten ikasturte bakoitzeko: 0,44 puntu
- Euskal Herriko Ikastoletatik kanpo dauden zentroetan, HHko azken etapan eta LH 1. zikloan lan egin duten hilabete bakoitzeko: 0,04 puntu.

b) Formakuntza (11 puntu)

- Lehen Hezkuntzarekin lotutako metodologia aktiboan burututako ikastaroak:
 - Gutxienez 50 ordukoak: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu).
 - Gutxienez 100 ordukoak: 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko (gehienez 3 puntu).
- Haur Hezkuntzarekin lotutako metodologia aktiboan burututako ikastaroak:
 - 50 ordutik goitikoak: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu).
- Skolae proiektuaren 1. ardatza egina (puntu 1).
- Skolae proiektuaren hezkuntza zentro bateko talde eragileko partaidea (3 puntu).

c) Bertze merezimendu batzuk (4,5 puntu)

- Espediente akademikoa (4,5 puntu, 7,5etik goitiko bataz bertzekoa).

6. Froga teknikoa (60 puntu)

a) Test moduko froga (20 puntu) eta lanpostuarekin zerikusia duen gaiaren inguruko testua (10 puntu).

Epaimahaiak, alde batetik, 10 galderaz osatutako test-a eta bertzetik, gaiarekin zerikusia duen galdera bat aurkeztuko ditu. Guztia egiteko ordu bat izanen da.

Epaimahaiak, test moduko frogen eta gaiaren inguruko testuen zuzenketak egin ondoren, guztiak barematu eta erreklamazioak egiteko epea utziko du. Lehenengo 10 puntuazio hoberena lortu duten izangaiek aurrera egingen dute eta jarraian heldu diren bi frogak egingen dituzte (froga idatziaren defentsa eta ahozko elkarrizketa).

-Froga idatziaren defentsa (30 puntu).

Idatziko frogan, gaiarekin zerikusia duen galderan erantzun duten horren defentsa izanen da.

7. Ahozko elkarrizketa (10 puntu).

8. Frogen ordutegiak eta hauen emaitzen argitaratzea.

Onartutako eta onartu gabeko izangaiek, froga teknikoaren eta ahozko elkarrizketaren data eta ordutegiak, Baztan Udaleko Web orrialdean argitaratuko dira. Test moduko froga eta lanpostuarekin zerikusia duen gaiaren inguruko testua guztiek egun eta ordu berean izanen dute. Froga idatziaren defentsa eta ahozko elkarrizketa berriz, bertze egun batean izanen dira. Azken bi hauek guztiek egun berean izanen dute, baina ordutegi desberdinetan (zozketaren bidez erabakiko da eta ezin izango dira aldatu).

Emaitza guztiak (merezimenduena eta froga guztiena) Ikastolako eta Udaletxeko iragarki-taulan eta Udaleko Web orrian argitaratuko dira.

Hautagaiek 7 egun natural izanen dituzte Batzordeari erreklamazioak aurkezteko emaitzak argitaratzen direnetik (merituen erreklamazioak aurkezteko, meritua argitaratzen direnetik 7 egun natural egonen dira eta Froga teknikoaren erreklamazioak emaitzak argitaratzen direnetik 7 egun natural). Erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira Baztango Udalan (astelehenetik ortziralera 9:00etatik 14:00etara). Epaimahaiak erreklamazioei erantzun idatzia emanen die.

9- Ordezkapenak egiteko:

Deialdi honetatik sortuko den zerrendako lehendabiziko pertsonari kontratu mugagabea egingo zaio. Ondotik geldituko den zerrendarekin perfil honetako lan poltsa osatuko da eta lan poltsa honek aitzinekoa ordezkatuko du.

Aitzinetik aurreikusitako ordezkapenetan lan egiteko, Baztan Ikastolak lan poltsako partaideei bi aldiz deituko die. Deitutako lan poltsako partaideak 24 ordu izanen ditu lana onartzeko edo lanari uko egiteko. Partaidearekin komunikatzea ezinezkoa izan bada edo lan eskaintzari uko eginez gero, zerrendako hurrengoari deituko zaio.

Bat-bateko ordezkapenetan lan egiteko berriz, bi aldiz deituko zaie. Lan eskaintzari momentuan onartu edo uko egin beharko diote. Kasu honetan deitutako izangaiak telefonoa ez badu hartzen, Baztan Ikastolak hurrengo izangaiari deitzeko eskubidea izanen du telefonoa hartu ez duen izangaia zerrendatik baztertu gabe.

Lanari uko eginez gero eta lan kontraturik ez badute aurkezten lan poltsako zerrendako azkena izatera pasako dira.

Ikasturtea lanean akitzen duen izangaiak hurrengo ikasturtean lanean segitzeko aukera izanen du, Ikastolak nahi izanez gero.

Gure ikastolan lan egiten duten bakoitzean puntuak gehitu eta zerrendan igotzeko aukera izanen du. Hilabete bakoitzeko 0,16 puntu eta ikasturte bakoitzeko 2 puntu. Egun solteak pilatuko dira.

Ordezkapenak, hautaketa prozesuan sortu den LAN POLTSA erabiliz beteko dira kasu guztietan, eta bakarrik bide hau erabiliz ordezkorik lortzen ez den kasuetan, bertze bide batzuk erabiliko dira: Ikastolan lanean egondako irakasleak, Nafarroako Ikastolen lan poltsa, Ikastolara ailegatutako Curriculumak, INEM-a

I. ERANSKINA:

ESKAERA ORRIA

Izen-abizenak: , adinez nagusia.

N. A. N..... (edo balio bereko beste agiriren bat).

Sorteguna: Sorterria:(.....). Gaur
egungo helbidea (herria, probintzia, kalea, zenbakia, posta kodea):

.....
.....

Telefonoa: telefono mugikorra:

Posta elektronikoa:

Honako hau azaltzen dut:

Baztan Ikastolako Lehen Hezkuntza Diplomatura/Gradua edo Haur Hezkuntza Diplomatura titulazioarekin errelebo kontratua betetzeko eta lan poltsa osatzeko deialdian onartua izateko eskatu nahi dudala.

Deialdiko beharkizun guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

.....an,korenan

sinadura